

## ZUZENeko ARTEAK. SEKTOREAREN EGOERAREN BALORAZIOA COVID-19-AREN AURREAN



## ZUZENeko ARTEAK. SEKTOREAREN EGOERAREN BALORAZIOA COVID-19-AREN AURREAN.

Eusko Jaurlaritzak ezarritako EAeko kultura eta jai ekitaldien berpizte datarekin bat etorriz, zuzeneko arteek damutu egiten dute sektorea jasaten ari den atzerapen eta ezeztapen iraunkorra. Beharrezko segurtasun protokoloei jarraituz, bere jardueraren pixkanakako normalizazioa aldarrikatzen du, eta baita ere, zuzeneko ekitaldiak estigmatizatuak ez izatea.

Elkarte sinatzaileok aditzera eman nahi dugu COVID-19 krisiaren balorazioa, zuzeneko kultur jarduerari dagokionez.

Dokumentu honetan zuzeneko arteen sektore zabal bat irudikatuta dago, bere aldaera guztietan (musikariak, konpositoreak, sustatzaileak, diskoetxeak, enpresa teknikoak, kontzertu-aretoak, dantzariak, koreografoak, irakasleak, sortzaileak, ikertzaileak, kultur espazioetako kudeatzaileak, aktoreak, eszena zuzendariak, eszena ekoizleak, dramaturgoak, tiriteroak, banatzaileak, kaleko arteak, artistak eta zirkokoko prestatzaileak)

Jarraian egin nahi dugun lehenengo kontsiderazioa: COVID-19ak sortutako krisialdia osasun larrialdiko kasu bat da eta herritarren osasunari eragiten dio. Guztiz kontzientziatuta gaude osasun publikoa zaintzeak eta zuhur jokatzeko duen garrantziaz, gaur egun zorionez bilakaera ona izaten ari den arren.

Ildo honetatik jarraituz, Eusko Jaurlaritzak osasun larrialdiko egoera eta Espainiako Gobernuaren alarma egoera dekretatu aurretik, gure sektorearen zuzeneko jardueraren zati handi bat “motu propio” bertan behera geratu zela nabarmendu nahi dugu, gizartearekiko dugun erantzunkizunagatik. Era berean, konfinamendu aldia arintzeko hainbat sortzailearen ekarpen eskuzabalak azpimarratu behar dira.

Dokumentu hau sinatzen duten elkarte asko RESET plataformako parte dira. Plataforma hau Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin etengabeko komunikazioa izateko sortu zen, eta ia krisiaren hasieratik ari da lanean.

Bere lan ildoak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin batera, funtsean 4 arlotan garatu dira:

- **Egoeraren diagnostikoa.** Lehenengo fasean nahitaezkoa zen diagnostiko on bat egin ahal izatea, jarduera arintzeko eta sektorea berreraikitzeke ekintzak ahalik eta egokienak zitezen.
- **Neurri aringarriak.** Erakunde desberdinetatik proposatutako neurri orokorreki sektorearentzat berezkoak diren neurriak ezartzea eta kaltetutako pertsonentzat laguntza eta informazio lehiu bat sortzea.
- **Segurtasun-protokoloak.** Protokoloak bideragarriak ote diren egiaztatzea zuzeneko jarduerak dituen aukera guztietarako.
- **Jarduera berreraikitzea.** Programatutako jardueren etena saihestea eta aukerak bilatzea, atzerapenen bidez eta zuzeneko kultura garatzeko modu berrien bidez osasun errealitate berrira egokituta.

Prozesu honetan, bat etortzeak eta desadostasunak, ikuspuntu desberdinak eta intentsitate fase desberdinak, logikoki, egon direla aipatu nahi dugu, baina, une oro, giro positiboan eta konstruktiboan egin da lan.

Baina lan asko dago aurretik, batez ere orain, jarduera berreraikitzeke unea baita, eta hori da gaurko deialdiaren arrazoi nagusia. Elkarriketa eta lan ugari egin diren arren, oraindik ez dakigu zer neurri zehatz hartu behar diren aforoan, distantzian eta segurtasun-neurrien inguruan bere suspertzean lan egin nahi, eta lan egin behar duen sektore bat abian jartzeko. Neurri horiek, jada oso kaltetutak izan diren beste sektore batzuetan ostalaritza edo hezkuntzan ezarrita daude, ez ordea zuzeneko arteen sektorean, horrela ezinezkoa da ekitaldiak suspertzen hastea. Izan ere, ekitaldi horiek atzerapen eta ezeztapen etengabea daude, eta une honetan hain beharrezkoa den kultura eta aisia bezalako ondasun bat galeratzen ari gara gizarteari. Ezarritako protokoloei jarraituz gure jarduera pixkanaka normalizatzea eta zuzeneko ekitaldiak ez estigmatizatzea funtsezko elementuak dira sektorea hil ez dadin.

Araudi ez-zehaztu honekin eta protokolo argien ezarekin lotuta, oso kezkatuta gaude udal administrazioa berreraikitzeke prozesu hau kudeatzen ari den moduarekin. Kultura eta jai jarduera ia sistematikoki eten da. Erabakiak loturirik gabe hartuak dira, kasu batzuetan bakarka eta beste batzuetan bizpahiru erakunderen artean hitzartuta, eta kasurik onenean, jaietako jarduera beste kultur programazioen batek ordezkatzeko duela adierazi dute.

Baina iragarpen horiek inolako zehaztasunik gabe eginak izan dira, eta beldur gara erabat murriztuko ote den uneren batean gauzatuko balitz. Badakigu jai eta kultura partidetako baliabide ekonomikoak beste aurrekontu-kapitulu batzuetara bideratzen ari direla.

EUDEL-ek aforoan murrizketaren inguruan, gomendio orokorrak baino gogorragoa den gomendio bat aurkeztu zuen udalenezako, bertan ez ziren aurkeztu gomendio hori bermatzen zuten argudio teknikorik eta honek, kultura jarduera pribatua ekonomikoki bideraezina egiten du.

Udal garrantzitsuenekin, eta baita EUDEL-ekin ere, harremanetan jartzeko etengabeko esfortzua egin dugu. Beraien esanetara eta elkarrekin lan egiteko prest gaudela jakinarazi nahi izan diegu, baina tamalez, komunikazio-bideak ezartzeko egin ditugun eskaerak ez dute erantzunik jaso.

Aldundiak eta, batez ere, udal administrazioa zuzeneko arteen programatzaile nagusienetarikoak direla nabarmendu behar da, eta baita ere, gure jardueraren trakzio-elementu bat.

Baina gure jarduera, balio sozial eta kultural apartekoa izateaz gain, ekonomia-eragile garrantzitsua ere bada, enplegua eta aberastasuna sortzen dituena. 2018an, kultur jardueretan sailkatutako enpresak EAEko enpresa guztien % 4 ziren, eta enplegu guztiaren % 2,9 sortzen zuten. Kulturaren Euskal Behatokiak argitaratu berri duen txostenean, kultur sektorearen pisu espezifiko eta krisiak sektore honetan izan duen eragina aztertzen dituzte.

[https://www.kultura.ejgy.euskadi.eus/r46-19123/es/contenidos/informacion/keb\\_covid\\_eragina\\_kutursektore/es\\_def/index.shtml](https://www.kultura.ejgy.euskadi.eus/r46-19123/es/contenidos/informacion/keb_covid_eragina_kutursektore/es_def/index.shtml)

Ez dugu ulertzen zergatik industriak, prestakuntza akademikoak, unibertsitateak, kirolak, merkataritzak eta beste sektore batzuk, jakina, segurtasun-protokoloen bidez, beraien jarduera garatu dezaketen, eta hala eta guztiz ere, zuzeneko kultur sektorea aukerarik gabe bertan behera geratzen den. Jasotako lehen datuen arabera, arteen zuzeneko sektorearen jarduera %80-85 jaitsi da martxotik apirilera bitartean, gainera kontuan hartu behar da aktibitatea %100 gelditu zela alarma-egoera adierazi eta gero.

Azkenik, Euskadiko hauteskunde garaira hurbiltzen ari garenez, alderdi politiko guztiei proposatu nahi diegu herritarrei zuzeneko kultur jardueraren inguruko beraien proposamenak erakusteko, eta zehazki, udal-esparruan egin dituzten proposamenak.

#### **ELKARTE SINATZAILEAK:**

Adde (Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte)

Artekale (Euskal Herriko Kale Arteen Elkarte)

Besteok

EAB (Euskal Aktoreen Batasuna)

Eskena (Euskadiko Ekoizle Eszenikoen Elkarte)

EZE (Euskal Zirku Elkarte)

Kultura Live (Euskal Herriko Musika Aretoen Elkarte)

MIE (Musika Industriaren Elkarte)

Musikagileak (Euskal Herriko Musikagileen Elkarte)

Musikari (Euskal Herriko Musikariak)